



VillaSoundBilbao musika-arloko programa bat da, Bilboko Udalak sustatua. Helburua da **EAEko eta Nafarroako bakarlari eta talde gazteek (16 eta 35 urte bitartekoek)** zeuen ibilbide profesionalean bultzada bat jaso dezazuela, eta gaur egungo musika-panorama publikoari hurbiltzea. Horretarako, deialdi hau ireki da. Epaimahaiak hautatzen dituen musikariek zuzenean joko dute martxoan eta apirilean Bilborocken egingo diren 4 kontzertuetako batean.

Ondoren, bakarlari/talde horien artean aukeratuko da nortzuk igaroko diren prestakuntza-fasera (MENTORING). Fase horretan, musika-industriako profesionalak prestakuntza bat emango dizuete. Azkenik, talde/bakarlari horietako batek TOUR bat egingo du hainbat hiritan zehar, 2025ean. Musikaren arloko sustatzaileek ere urtean zehar beste kontzertu batzuetan jotzeko aukeratu ahalko dituzte taldeak edo bakarlariak.

ZER LOR DEZAKEGU?

- **Kontzertu bat Bilborocken VSB Fest-en**, epaimahaiak hautatutako 12 talde edo bakarlariantzat. Haietako bakoitzak, ondoren, kontzertuaren **bideo-grabazioa** jasoko du, 2 kamerarekin egina, bai eta kontzertuaren **audio-pisten bidezko grabazioa** ere, editatzeko eta birmasterizatzeko moduan.
- **Mentoretza pertsonalizatua** epaimahaiak hautatutako 6 talde edo bakarlariantzat, A&R batekin eta/edo managerrekin, eta estudio-saio bat.
- **4 kontzertuko bira bat Estatuko hiri banatan, Son Estrella Galicia zikloaren eta aretoen barruan**, talde edo bakarlari batentzat, talde ospetsu baten telonero gisa. 4 emanaldiak ordainduko dira.
- **Kontzertu bat Aste Nagusian, Bilboko pop-rock erakusketan**, epaimahaiak hautatutako Bizkaiko talde/bakarlari batentzat.
- **Kontzertu bat Musika Bulegoa-ko** partaide den areto batean, eta 1.000 € + BEZa dieta gisa, talde/bakarlari batentzat. Musika Bulegoa-k aukeratuko du taldea/bakarlaria.
- **Emanaldi bat BIME Live-n** talde/bakarlari batentzat.
- **Emanaldi bat SGAE Fundazioak antolatutako Urban musika ekitaldi batean, 2025ean**
- **BIME Pro-rako sarrerak** mentoretzarako hautatutako 6 talde/bakarlariantzat.
- **"Lokal Session" bideoklip bat grabatzea** Bilborockeko lokaletan, talde/bakarlari batentzat.

NORK HAR DEZAKE PARTE?

- **Egungo musika estiloetan** (rock, pop, metal, rap, trap, musika elektronikoa, folk, autore-musika, ...) edo haien fusioetan jarduten duten **talde eta bakarlariek**.
- Talde edo bakarlari horiek **Euskal Autonomia Erkidegokoak edo Nafarroakoak** izan behar dute, eta baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Jatorria: taldeko kideen erdiek, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko eta/edo Nafarroako udalerrri batean izan behar dute bizilekua.
 - Adina: kide guztien jaiotegunak **1990**ko urtarrilaren 1etik **2009**ko abenduaren 31ra artekoak izan behar dira.
 - Errepertorioa: lehiaketara aurkezten diren konposizioak originalak izan beharko dira. Antolatzaileek eskatuz gero, musikariak frogatu beharko du konposizioaren egilea dela.
 - Parte-hartzaileek ezingo dute eduki kontratu diskografikorik indarrean; hala ere, ez da izango baztertzeko arrazoia kolaborazio, autoekoizpen edo lizentzia kontratu bat indarrean edukitzea.

NOIZ EMAN DEZAKEGU IZENA?

2025eko **urtarrilaren 13tik otsailaren 13ra** (egun biak barne) eman daiteke izena.

ZELAN?

Web orrian (www.bilbao.eus/bilborock) eman behar da izena, inprimakia betez, eta harekin batera, honako hauek aurkeztuz:

- 3 kanta, mp3, ogg edo wma formatuan.
- Argazki bat, jpg, bmp edo png formatuan.
- Taldearen ibilbidea, doc, docx, odt edo pdf formatuan.
- Taldearen edo bakarlariaren sare sozialetako profilak (Facebook, Instagram eta abar).
- Editatu gabeko bideo baten esteka, zuzenekoah nahiz entsegukoah (taldea zuzenean jotzen, ez bideoklipa)

Izena ematean "ordezkari" moduan ageri den pertsona taldeko kide izan beharko da, eta Bilborockeko kontzertuan egon beharko du.

ZELAN EGITEN DA BILBOROCK-EKO KONTZERTUETARAKO HAUTAKETA?

Musikaren arloko profesionalak osatutako epaimahai batek gehienez 12 talde edo bakarlari hautatuko ditu aurkeztutako proposamenen artean. Zuzenean joko dute Bilborocken, **VSB Fest**-en, lau egun hauetako batean: **2025eko martxoak 21 eta 28 eta apirilak 4 eta 11**. Antolatzaileek ezarriko dituzte egun eta ordu zehatzak. Emanaldi horretan (30') jotzen dituzten konposizio guztiak taldeek edo bakarlariek sortuak izan beharko dira.

ONARTUKO AL DA KASUREN BATEAN KIDEREN BAT ORDEZTEA?

Taldea osatzen duten kideak, zuzeneko emanaldia eman behar dutenak, izena emateko agirian ageri diren berberak izan beharko dira. Kideren bat ordeztekotan, ezinbesteko kausa batengatik izan beharko da, eta antolatzaileek baimendu beharko dute. Betiere, ordezkoak ere bete egin beharko ditu oinarrietan ezarritako baldintzak. Bakarlariaren kasuan, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

NORK ORDAINDUKO DITU ZUZENeko KONTZERTUETAKO JOAN-ETORRIETAKO GASTUAK?

Talde edo bakarlari bakoitzak diru-ordain bat jasoko du joan-etorrietako gastuetarako: 180 eurokoa Bizkaiko taldeen kasuan, eta 250 eurokoa Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako taldeen kasuan.

ETA JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK?

Zuzeneko emanaldiak izan aurretik, zeuen kantak jabetza intelektualeko eskubideak defendatzen dituen entitateren batean erregistratuta badauzkazue, VillaSoundBilbao jaialdiaren antolatzaileei jakinarazi beharko diozue.

ZERTAN DATZA MENTORING-A?

VSB Fest amaitu ondoren, epaimahaiak parte harte dutenen artean 6 talde edo bakarlari hautatuko ditu, **mentoretza pertsonalizatu bat** jaso dezaten, A & R batekin eta/edo managerekin, bai eta estudio-saio bat ere.



ZELAN EGITEN DA TOUR-RERAKO HAUTAKETA?

Bilborockeko VSB Fest-en kontzertuen ondoren, epaimahaiak talde/bakarlarien artetik bat hautatuko du, zikloaren barruan **Tour bat** egiteko, **Son Estrella Galicia-ren zikloan eta aretoetan**. Hautatutako talde edo bakarlariaren izena eta epaimahaiak egiten dituen gainerako aukeraketak maiatzaren 3an, larunbata, jakinaraziko dira, Bilborocken egingo den ekitaldian.

Tour-rean, gutxienez, 4 kontzertu programatuko zaizkio Estatuko hainbat aretotan, eta beste talde batekin edo gehiagorekin jardungo du. Emanaldi horietako bakoitzaren truke 750 euro jasoko ditu.

BESTELAKOAK

VillaSoundBilbao programaren antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango baldin eta parte-hartzaileek konposizioak bidaltzean beste pertsona batzuen egiletza-eskubideak urratzen badituzte; erreklamazioen bat egiten bada, parte-hartzaileak baino ez dira erantzule izango.

Programan parte hartzen duten musikariek baimena ematen diote Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailari VillaSoundBilbao programan parte hartzean sortzen diren musika eta irudiak eta kontzertuak sustatzeko aurkeztutako kanten grabazioak hedatzeko, betiere helburu komertzialik gabe.

Kontzerturen batean parte hartzeko hautatuak zareten talde edo bakarlariak –dela Tourraren barruan jotzeko, dela entitate kolaboratzaileek antolatutakoetan jotzeko– Gizarte Segurantzaren alta ematearen kostua eta kontzertua emateko betebeharrak fiskalen kostua zeuen gain hartu beharko dituzue, baita indarrean dagoen legeria betez kontzertuaren antolatzaileak eskatzen dizkizuen betebeharrak ere.

Deialdi honetan izena emanez gero, oinarriak osorik onartzen dituzu.

Antolatzaileek eurentzat gordetzen dute oinarri hauek aldatzeko eskubidea, deialdia hobeto gauzatzearren.